Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6374

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 8koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, 2010eko ekitaldian turismoa sustatu eta merkaturatzeko laguntzak emateko jarritako baliabideak gehitu egin direla jakinarazteko dena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren bitartez (EHAAren 103. zk., 2006ko ekainaren 1ekoa) –2008ko otsailaren 25eko Aginduaz eta 2010eko otsailaren 4ko Aginduaz aldatua–, turismo sustatu eta merkaturatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren laguntzen markoa finkatzen da.

Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko deialdia egin zuen Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen 2010eko uztailaren 2ko Ebazpenaren 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, egoki iritzi zaio 2010eko ekitaldirako programan ezarritako funtsak gehitzeari.

Horregatik, 2010eko uztailaren 2ko Ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmenaz baliatuz, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– 2010eko uztailaren 2ko Ebazpenean 2010eko ekitaldirako aurreikusi diren baliabide ekonomikoak 1.922.480 eurora arte handitzea; betiere, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko beste laguntza-programa batzuen aurrekontuan erabilgarri dauden kopuruen arabera. Ebazpen horren bidez, bestalde, turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko programan jasotako laguntzak emateko deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 8a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

6374

RESOLUCIÓN de 8 de noviembre de 2010, de la Viceconsejera de Comercio y Turismo, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados para la concesión de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística 2010.

La Orden de 17 de mayo de 2006 (BOPV n.º 103, de 1 de junio), de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, modificada por Orden de 25 de febrero de 2008 y por Orden de 4 de febrero de 2010, establece el marco de ayudas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco destinadas a la promoción y comercialización turística.

De conformidad a lo establecido en el artículo 1 de la Resolución de 2 de julio de 2010 de la Viceconsejera de Comercio y Turismo por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, procede realizar el incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen para el ejercicio 2010.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la Resolución 2 de julio de 2010,

DISPONGO:

Primero.– Incrementar hasta un total de 1.922.480 euros los recursos económicos previstos para el ejercicio 2010, en la Resolución de 2 de julio de 2010, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas establecido en el Programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de noviembre de 2010.

La Viceconsejera de Comercio y Turismo,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.